

Usteak urte



Irakurtzekoak

ASKOREN ARTEAN
'Mikel Laboa'
AEK-Elkar, 1995
192 or.

Ahotsaren mugak

AMAIA ITURBIDE

● AEK-k Elkar argialetxearekin batera 'Mikel Laboa' izenburuko liburua argitaratu du 1995.eko urte honetarako Korrika-ren egitarau barruan. Izan ere, euskal kantagintzan 30 urte bete dituela eta, omenaldi gisa antolatua da sei zatitan: hitzaurrea, biografia (Pello Urzelaik egina), diskografia, kartelak, kolaborazioak eta kantu aukeratu batzuen partiturak.

Argazkiz eta Jose Luis Zumeta, Ruiz Balerdi, Ramos Uranga edo Tamayo bezalako margolarien marrazki eta pinturez horniturik, kantari txeroke honen pausoz pausoko barne bilakaera eta hegaldia jakiteko parada da. Bertan bere bizitzaren gora-beherak, beti ere kantugintza gidari dela, ezagutu ahal izango ditugu.

Ez Dok Amairu taldearen izpiritua eta historia, batez ere, Joxean Artzerekin muntatutako lanak, kanpoko abeslarietako harremanak (Lluís Llach, Raimon, Pablo Milanes, Silvio Rodríguez...) edo euskal kantari gazteekikoa.

Humanismo idealistaren ibilbidetik Mikelek, nahiz eta bakar-lari izan, erakutsi izan du bestee-kiko elkartasuna, menperatutako herri eta gizakiekikoa, prest egon da kausa jator baten aldeko kanpainetan egoteko. Talde-dinamika zalea, disko kolektiboetan maiz parte hartu du eta bere zuzeneko kantaldietan entzun-ikusleekiko komunikazioa zirra-

razkoa da. Gogoangarri ditugu baita ere Bertolt Brecht-en hitzen gaineko kantua.

Herri kontzientzia berpiztu xedez, Euskal Herriarekiko konpromezua jorratu du eta musika-tresna moduan eztarria aukeratu. Atzamarra zaurian jartzen den bezala, Laboak bere ez-tarria, herri honen ez-tarria ipintzen du, bere bihotza, herri honen bihotza ere baden ez-tarri gazte eta iraultzailea, garrasi gorritz eta sorgin-hotsetan apurtua. Ez-tarri korapiloak, bihotzerreak eta adierazi nahi eta ezinaren kate astunak askatzeko azpikontzientziaren diagnosirako ildo den orro biluzia, hots biologikoa hartzen du.

Arrazoiaren kanpoko hitz eta hotsak nahastuz Euskal Herriaren bizi nahia grabatu du irau-

kortasun eta ozentasunez, eta kantuz kantu, mugaz muga askatasuneranzko urratsa hedatu. Mikel Laboak bere kantu urratuaren bidez eta Jose Luis Zumetak bere pintura expresionista dela medio herri honi buruzko kezka euren barnetik erauzi nahi dituzte eta kanpoan moldatu. Horregaitik, Mikel Laboarentzat musika eta Jose Luis Zumetarentzat pintura adieraz-penak eta aska-penak dira, funtzio katartikodun bi barne esplorazio.

Lurrari sustraitu bitartean aire berriak arnastuz hiru aro landu ditu Mikel Laboak: Iparraldeko euskal kanta tradizionalak, garaiko beste poeten hitzez (Lete, Sarrionandia...) musikatutakoak eta hitz-hots onomatopeikoen gaineko kreazio experimentalak.

Horregaitik ikusiko dugu es-

zenatokia betiko jantzi ilunez, batzutan soil eta goibel, bere baitan bildua, hitzak isilduz edo erdi zezelduz, lokuluxka samurrean eta kitarra-hariak ia xirulatz, eta besteetan elbarri baten saioak antzestuz oihi latzak eta ulergaitzak jaurtikitzen dramatismoz.

Izan ere, gauza bat da Mikel Laboa entzutea magnetofoiroz edo ikustea zuzenean, ikuskizunari garrantzi haundia ematen baitio. Eta ahoz-kotasunaz gain, benetako *show*-ak muntatzen ditu *play-back*-eko zatiez, grafittiz... alde estetiko eta teknikoak uztartuz.

Dagoen dagoenetik utopia-ranzko biderantz abesten du Mikel Laboak eta bere musika entzutean entzulea baitaratu eta hazi egiten da.

TAPIA
ETA
LETURIA
BAND

Entzutekoak

TAPIA ETA LETURIA BAND
Elkar, 1995

ANDONI TOLOSA

● Susmoak baino ez dira. Ustedut ordea gustatu egiten zaiela musika egitea Tapia, Leturia eta konpainiari, eta hori gutxi balitz gainera ondo pasatzen dutela musika egiten.

Susmoak susmo, sinesten hasia naiz gaur egun Euskal Herrian darabilkigun talde osatuena dela boskote hau eta hori oso garbi agertzen dute Tapia eta Leturia Band honetan, non benetako talde lana egin duten.

Esaten zidan neure amak kontuz ibiltzeko musika maite zuten musikariek edozein momentutan erokeriaren bat egiteko prest leudekeelako. Eta gehienetan bezala neure amak arrazoia zuen horretan ere; Mikel Artieda *trash* kantatzen, Batiz Pottokaren anaia bailitz, Tapia eta Leturia errosarioa errezatzen, eta Fernando Leiza batera sutan jartzen 'Kanibalaren kanta' eta beste ba-

tzuetan. Hau ez da serioa; supositorio baten istorioa, baloi baten komediak, arraultza eta zingarraren apologia, ogi bihozberen problematika eta sauna bateko istripuak dira besteak beste topatuko dituzunak sormen katalogo honetan.

Neure amak esan zuenari hala ere gauza batzuk gehitu nahiko nizkioke; hala nola, zeinen osasungarria den musikariek beren ikuspegi musikala zabaltzea, esker-garria dela benetan oraindik ere freskotasunik topatzea hain musikari esperimintatuen edo ariuten jardunean, eta ere gehiagoko belarriak poztu egiten dituela horrelakorik topatzea, errazera jo beharrean bizitza korapilatu nahi eta horrelako apustu baten arriskuei aurre egiten dieten musikariak.

Saiatu naiz amari ulertarazten egileak jartzen dituen mugek izan behar dutela musika sormenaren muga bakarrak, eta osasun-

garria dela egileak (nahi duenean, nahi duen moduan) enkasilamenduaren harresiak haustea. Noski, ez du gehiegi ulertu baina hala ere onartu behar izan du ez dagoela zertan ez begiraturik aurrera.

Noski, neure amari ez zaio asko gustatu lan hau nahiz eta kantu batzuekin barre egin duen ezkutan lotsaturik bailegoen, neuri gustatu zait ordea nahiz eta oro har dispartso samar iruditu, talde bakarra ez baizik bost talde jartzen ariko balira bezala, ezinbesteko gaitza agian hain aberatsa den lanerako. Kantu batzuetan ere (zakarrenetan, agian) soinuak indartsuago izan beharko lukeela otu zait eta baita orain hasitako bide honek emaitza sendoagoak emango dituela aurrerantzean ere.

Berriro jarriko diot Tapia eta Leturia Band hau neure amari, ziur nago-eta azkenean gustatuko zaiola.

Ertzetik

Hasi

GERARDO MARKULETA

Lehengunean Jon Iriberr adiskidea egunkaritarra bidali nuenean, ez nuen uste laguna halako arrisku larrian jartzen ari nintzenik. Sosegatu samar zebilen azken boladan, baina seko aztoratuta bueltatu zen, egunkariek batera plastikoa bildutako aldzikari bat zekarrela. Marihuanari buruzko ale monografiko berezia zen: 'nola hazi, nola hartu, eta jakin beharreko eta inork jakinarazi ez dizun guztia'. Maria haziak ere bazekartzen, nahiz eta 'legeak hala behartuta' TUC psikoaktiborik gabekoak ziren. Lorezaintzari ekingo ote dio orain...

Aspalditik jasan behar izan dut, noizean behin, beraren istorio bitxi errepikatuak, kanuto mixerable bat erre ahal izateko egin behar izan dituenak behin eta berriro kontatzeko temak harrrapatu baitu, beste obsesio batzuen artean. Gogoan daukat, adibidez ostiral arratsaldetan inguruko herrietatik erromesaldia izan ohi den herri batera joan zeneko bidaiaria hura: zuhur, alde aurretik novegana jo behar zuen galdetuta, hura aurkitu, hark, berriz, goitik beherako behako lotsagabea egin eta «ez jauna, oker zabilta» entzun behar izan zuen orduko hartan ere: gero, *pubeko* komuneko ispiluan bere buruari begiratu eta dudatan ibili zen gizarajoa, ea ertzain piurarik-edo ote zuen: estimabiderako egoera pozoitsua, posoitsurik bada.

Betiko erretolika gero, «dozein momentutan behako supermerkatura jaitsi eta lau litro gin eros zezakeat inolako trabarik gabe ez gizarte-eragozpenik gabe: txina urri bat lortzeko, berriz, lelo aurpegia paseatu behar handik eta hemendik, eta azkenean esku hutsik amaitu; *hashisa* estankuetara, arraioa!». Azken aste honetan, bestalde, asperre-raino tematu zait beheko testua —berak 'poema' esten dio— ertz honetara ekar nezan. Amore eman dut azkenean, zer egin bestela, eta hor doakizue; 'Genesis' jarri dio izenburu eta honela dio: *Hastapenetan Harria izan zen. / Orain, berriz, kokor tiki bat baino ez, / lau txirri leuntxo biltzeko lain, eta akabo / Honen hutsal joaten zaigu denbora, / paper, errauts eta belar fin artean.*



XARIBARI

Legazpi Bi - 943 42 13 12 - DONOSTIAN 200.04
Bajada de Javier, 2 - 948 22 27 56 - IRUNEAN 310.01



BILINTX
MEGADENDA

DONOSTIAN: Euskal gaiak: Fermín Calbetón, 21 - Tel.: 420930
IRUNEN: República Argentina, 4 - Tel.: 626817
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 673533
BERGARAN: Ibargarai, 14 - Tel.: 764050



XALBADOR
LIBURUBENDA

Comedias, 14
Tel.: 224167 / 229981 - Faxe: 211061
31001 IRUÑA



URRETXIN DORRA
LIBURUBENDA

Iparragirre, 26
Tel.: 4240228 / 4244396 - Faxe: 4244235
48011 BILBO